begirada

71

azaroa
2018

Lege gordailua BI-1163-05

ikus pegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Gizarte Ekintzako eta Adiskidetzeko Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Dirección de Política Familiar y Diversidad

NAZIONALIZAZIOEN PROZESUAREN BILAKAERA EAE-N

Hemen, 42. Begiradaren eguneraketa aurkezten dugu, «Nazionalizazioen eragina migrazio-fenomenoan» izenekoarena, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak argitaratutako azken datuekin. Azterketaren ondorio nagusien artean, nabarmen dezakegu nazionalizazioen kopuruak gora egin duela azken urteetan, 2003-2009ko 11.201 pertsonako kopurutik 2010-2017ko 33.622 pertsonako kopurura; hau da, guztira 44.823 pertsona erregistratu dira aldi osoan (2003-2017).

Nazionalizazioen fenomenoa gero eta garrantzitsuagoa da atzerritar jatorriko biztanleen artean, eta arrazoi nagusia da atzerritarren finkapena eta egonaldia handiagoak izatea, eta, horren ondorioz, gero eta nazionalizazio gehiago gertatzea bai Estatuan bai EAEn. Espainiar nazionalitatea lortzeko prozesua egoera erregularizatzeko eta lege-estatusa lortzeko prozesuari lotuta dago, eta horrek berekin dakar laneratzeko eta integrazio soziala eta ekonomikoa lortzeko aukera handitzea.

Gainera, garrantzitsua da azpimarratzea ezen, nazionalizazioen prozesuaren ondorioz, estatistika ofizialetatik gero eta atzerritar nazionalitateko pertsona gehiago desagertzen ari direla espainiar nazionalitatea lortu ondoren. Eta horrek berekin dakar, nolabait, ikusten eta aztertzen ari garen migrazio-izebergaren zatia gero eta txikiagoa izatea, eta gero eta handiagoa, berriz, ur azpian gelditzen dena —atzerritar jatorriko biztanleak—.

Nazionalizazioek zerikusia dute Justizia Ministerioan erregistratutako aldeko ebazpenekin, eta zenbait baldintza[1] betetzearekin; besteak beste, Espainian legez bizi izana, etengabe eta eskaera egin aurreko aldian hamar, bost, bi urtez edo urtebetez egoeren arabera. Hartara, arau orokorra da hamar urteko legezko egonaldia izatea nazionalitatea eskatzeko, baina iheslari-estatusa duten pertsonen kasuan egonaldi hori bost urtekoa da, eta Latinoamerikako nazionalitate gehienen kasuan, Andorrakoa, Filipinetakoa, Ekuatore Gineakoa eta Portugalgoa dutenen kasuan eta sefardienean legezko egonaldiak bi urteko etengabea izan behar du. Azkenik, espainiarren zuzeneko ondorengoengandik Espainian jaiotako pertsonek bertan urtebete bizi ondoren eska dezakete nazionalitatea. Adierazitako desberdintasun horien ondorio zuzena da latinoamerikar jatorriko pertsonen presentzia dagokiena baino txikiagoa izatea erroldan, ez baitu ondo adierazten kolektibo horren garrantzia, eta afrikar jatorriko pertsonen presentzia dagokiena baino handiagoa izatea.

Nazionalitaterako izapidearen alderdi nagusiei dagokienez, hauek nabarmentzen dira: tasen ordainketa eta Espainiako kontu konstituzionalez eta soziokulturalez dakitena neurtzeko azterketa gainditzea. Herrialde espainoldunetatik ez datozen pertsonek, gainera, atzerriko hizkuntzaren azterketa gainditu behar dute (A2 maila). Eta eskabidea telematikoko bideratu behar da.

Bildutako datuetatik aurkeztutako informazioari dagokionez, datuek adierazten dute zer urtetan eman diren nazionalizazioak, edozein izanda ere eskabidea egin den urtea eta espainiar nazionalitatea eman zaion pertsonak izandako egonaldia.

[1] Bizilekua bertan izateagatik emandako espainiar nazionalitateak. Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. 2017

Nazionalizazioen eragina atzerritar jatorriko pertsonen artean EAE-n

Euskadin, 2003 eta 2017 artean nazionalizatutako 44.823 pertsona daude. Bizkaia da oraindik ere nazionalizazio gehien gertatzen den lurraldea, eta Gipuzkoa eta Araba datozkio atzetik

Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera (2017ko urtarrilaren 1ean), eta erregistroa dagoenetik (2003. urtetik); EAEn nazionalizatutako atzerritarrak 44.823 dira. Nazionalizazio gehien Bizkaian gertatu dira (22.174), eta atzetik datoz Gipuzkoa (13.518) eta Araba (9.131). Aldi horretan bertan 1.312.206 pertsona nazionalizatu dira Estatuan. Horrek esan nahi du Estatuko nazionalizazio guztietatik %3,4 EAEn gertatu direla. Kontuan hartzen badugu EAEko atzerritar nazionalitateko biztanleak Estatuko guztien %3,1 zirela eta EAEko atzerritar jatorriko biztanleak Estatuko guztien %3,2 zirela 2017an, nolabaiteko bat-etortze bat dagoela egiazta dezakegu.

Urtez urteko nazionalizazioen prozesuaren bilakaerari dagokionez —1. grafikoa—, esan dezakegu lehenengo urteetan estatistiketan izandako eragina txiki samarra dela, baina 2010. urtetik aurrera zertxobait handitu dela nazionalizazioen kopurua, eta, batez ere, azpimarragarria dela 2013an gertatutakoa, 9.004 nazionalizazio izan baitziren,

1. grafikoa

Nazionalizazioen bilakaera urtez urte EAEn (absolutuak, 2003-2017)



	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017 *	2003–2017
Araba	133	174	261	334	371	607	506	732	897	769	2.004	758	493	849	243	9.131
Gipuzkoa	171	205	382	460	523	669	728	857	952	1.605	2.877	1.408	970	1.396	315	13.518
Bizkaia	343	506	620	997	963	1.006	1.242	946	2.025	2.622	4.123	1.789	2.184	2.212	596	22.174
EAE	647	885	1.263	1.791	1.857	2.282	2.476	2.535	3.874	4.996	9.004	3.955	3.647	4.457	1.154	44.823
Estatua	26.556	38.335	42.829	62.339	71.810	84.170	79.597	123.721	114.599	115.557	261.295	93.714	78.000	93.760	25.924	1.312.206

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

(*) «2017an, bertan bizitzearen ondorioz emandako espainiar nazionalitateen kopuruak behera egin du administrazio-arrazoiengatik» (Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa)

2. grafikoa

Nazionalizazioen banaketa lurralde historikoaren arabera (%, 2003–2017)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

nazionalizazioen ematea azkartu egin zelako, nazionalizazioak izapidetzean atzerapen handiak gertatzen ari zirelako orduko testuinguruan.

Nazionalizatutako pertsonen ehunekoak lurralde historikoetan duen banaketari dagokionez, Bizkaiak jarraitzen du izaten ehunekorik handiena, Gipuzkoaren eta Arabaren aurretik. Dinamika horren arrazoia da atzerritarren kopurua eta finkatzen diren latinoamerikar jatorriko pertsonen kopurua handiagoa dela Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban baino.

Nazionalitateak

Latinoamerikarrenak dira EAEko nazionalizazio gehienak (%75,2), eta ehuneko hori Estatuko batezbestekoa baino handixeagoa da (%72,6). Lurralde historikoetan, nazionalizazioen %80,2 latinoamerikarrenak dira Bizkaian, eta atzetik datoz Gipuzkoa (%73,6) eta Araba (%65,3)

Nazionalitateei dagokienez, EAEn 2003 eta 2017 artean izandako nazionalizazio gehienak latinoamerikar jatorrikoenak izan dira (%75,2). Arrazoietako bat da latinoamerikarren kopurua handiagoa dela, eta beste bat, berriz, nazionalitatea lortzeko erraztasuna —bi urte bizi behar izatea—. Euskal Autonomia Erkidegoa Estatu osoarekin erkatzen badugu, eredua antzekoa da, eta latinoamerikarren nazionalizazioen ehunekoa baino ez da handixeagoa (+2,6 puntu) EAEren kasuan, baina afrikarren kasuan 2,2 puntu txikiagoa da.

3. grafikoa

Nazionalizazioak Estatuan, EAEn eta lurralde historikoetan jatorriaren arabera (%, 2004– 2017)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

4. grafikoa

Nazionalizazioen bilakaera urtez urte EAEn, jatorriaren arabera eta metatuta (%, 2004–2017)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Euskal Autonomia Erkidegoa Estatu osoarekin erkatzen badugu eredua antzekoa da

Lurralde historikoetan —3. grafikoa—, latinoamerikar nazionalitateei dagozkie 2004 eta 2017 arteko nazionalizazio gehienak; Bizkaian, %80,2raino. Ehunekoak, ordea, txikixeagoak dira Gipuzkoan (%73,6) eta, batez ere, Araban (%65,3), non indarra hartzen hasi dira, kopuru txikiagoekin bada ere, afrikarren arteko nazionalizazioak (%28,7).

Kontuan hartzen badugu urtez urteko nazionalizazioen eta dagozkien jatorrien bilakaera, zenbait joera ikus ditzakegu —4. grafikoa—: alde batetik, nazionalizazioen pisuak behera egin du latinoamerikarren artean; 2004ko %70,2tik 2017ko %64ra. Aldi horretan, 2009an izan zuen pisurik handiena, emandako hamar nazionalitatetik bederatzi latinoamerikar jatorrikoak izan zirelako. Ordutik gaur egun arte, latinoamerikar jatorriak pisua galduz joan dira, eta beste batzuk, berriz, irabaziz, hala nola afrikar jatorriak, 2004ko %14,7tik 2017ko %27ra igo baitira.

Sexua

2003 eta 2017 artean, nazionalizazioen %59,3 emakumeei eman zaizkie eta %40,7 gizonezkoei, neurri batean nagusi izateagatik EAEn latinoamerikar jatorriko pertsonak eta, jatorri horren barruan, feminizazio-tasak handiak izateagatik.

Urtez urte sexuaren arabera emandako nazionalizazioei dagokienez —1. taula—, dinamika bera izan da 2003tik gaur egun arte: emakumeen ehuneko handiagoa, latinoamerikar jatorriko pertsonen nagusitasunaren ondorioz orain ere. Lurralde historikoetan, azken urtean nabarmentzen da emakumeek pisu handiagoa dutela Gipuzkoan (%60,6) eta Bizkaian (%60,2) Araban (%51,9) baino, neurri handi batean, alde batetik, latinoamerikarren kolektiboak pisu txikiagoa duelako lurralde horretan, eta, bestetik, gizonezko atzerritarren kopurua beste lurralde historikoetakoa baino handiagoa delako. Azken urteetan, 2009 eta 2017 artean, ikusten dugu —1. taula— emakumeen pisuak beherantz egin duela nazionalizazioetan, eta gizonen presentzia gero eta handiagoa dela. Hala, 2009an nazionalizazioen %35,4 baino ez zitzaizkien eman gizonei, baina 2017an %41,4 eman zitzaizkien. Lurralde historikoetan, joera hori batez ere Araban areagotzen da, 2009ko %38,9tik 2017ko %48,1era aldatu baita, lurralde horretan afrikarren presentzia handiagoa izatearen ondorioz.

1. taula

Nazionalizazioen bilakaera sexuaren arabera (%, 2003–2017)

		2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
EAE	Gizonezkoak	36,6	40,2	38,6	38,9	40,0	38,7	35,4	39,6	40,3	40,1	43,5	42,2	41,0	40,7	41,4
	Emakumezkoak	63,4	59,7	61,4	60,9	60,0	61,3	64,5	60,2	59,6	59,9	56,5	57,8	59,0	59,3	58,6
Bizkaia	Gizonezkoak	39,2	42,9	39,5	41,5	41,3	38	34,3	38,8	38,4	38,3	40,4	39,2	38,2	37,3	39,8
	Emakumezkoak	60,8	57,1	60,5	58,3	58,7	62	65,5	61,1	61,5	61,7	59,6	60,8	61,8	62,7	60,2
Gipuzkoa	Gizonezkoak	32,9	38,3	38,9	37,1	37,4	37,4	34,9	39,3	42	40,7	43,7	41,8	42,6	40,8	39,4
	Emakumezkoak	67,1	61,5	61,1	62,6	62,6	62,5	65,1	60,4	58	59,2	56,2	58,2	57,4	59,2	60,6
Araba	Gizonezkoak	42,9	42,5	36,4	40,4	45	41,7	38,9	41	42,8	45	49,6	50,1	50,1	49,7	48,1
	Emakumezkoak	57,1	57,5	63,6	59,3	55	58,3	60,9	58,9	57,2	55	50,4	49,9	49,9	50,3	51,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Arrazoiak

«Bi urteko egonaldia bete izanak» jarraitzen du izaten nazionalitatea emateko arrazoi nagusia. Hala ere, indarra galdu du azken urteetan, eta beste batzuk indartuz joan dira, hala nola «hamar urteko egonaldia» eta «Espainian jaioa»

5. grafikoa

Nazionalizatzeko arrazoi nagusiak Estatuan, EAEn eta lurralde historikoetan (%, metatuta, 2004–2017)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

2004tik gaur egun arte EAEn nazionalitatea lortzeko arrazoiei dagokienez, nagusia bi urteko legezko egonaldia izan da (%68,8), atzetik, neurri txikiagoan bada ere, hauek dituela: espainiar batekin ezkontzea (%11,4) eta hamar urteko legezko egonaldia (%11,1). Garrantzitsua da kontua hartzea egonaldia egoiliar-txartela lortuz geroztik kontabilizatzen dela, eta ez Espainiako lurraldera iristen denetik.

EAEko eta Estatuko egoerak erkatzen baditugu, esan dezakegu antzekoak izan direla nazionalitatea lortzeko arrazoiak, aldaketa txikiren batekin. Hala, «bi urteko egonaldia» arrazoia handiagoa da EAEn (%68,8) Estatuan (%66,2) baino. Lurralde historikoetan, Bizkaiak du arrazoi horren ondoriozko nazionalizazioen ehuneko handiena (%73,5), eta Arabak, berriz, txikiena (%60,4). Baina «hamar urteko egonaldia» arrazoia txikixeagoa izan da EAEn (%11,1) Estatuan (%12,7) baino. Hala ere, lurralde historikoetan, arrazoi horregatik emandako nazionalitateen ehuneko handiena (%18,1) Arabak izan du, bertan hamar urte baino gehiago bizitzen daramaten magrebtar jatorriko pertsonen ehunekoa handiagoa izatearen ondorioz, espainiar nazionalitatea lor baitezakete.

Bilakaeraren ikuspuntutik, bi urtez bertan legez bizitzea oraindik arrazoi nagusia bada ere nazionalitatea lortzeko, 2010. urtetik aurrera pisua galtzen hasi da, eta beste arrazoi batzuk garrantzi handiagoa hartzen, hala nola, besteak beste, «hamar urteko egonaldia izatea» eta «Espainian jaio izana», eta dinamika horren eragileak magrebtar jatorriko pertsonen pisua eta Euskadin bigarren belaunaldi izen desegokia hartu dutenen egonaldia eta agerpena dira. Beste arrazoietako bat ere, «espainiar batekin ezkonduta egotea», pisua galduz joan da 2008tik gaur egun arte.

Seme-alabei «Espainian jaioa» aukeraren bidez espainiar nazionalitatea emateko, gurasoak atzerritarrak izanda ere, haietako batek behintzat Espainian jaioa izan behar du, edo, bestela, gurasoak atzerritarrak izanik, nazionalitaterik gabekoak izan behar dute, edo gurasoetako ezeinen legediak ez dio umeari nazionalitaterik esleitu behar, edo afiliazioak ez du zehatza izan behar.

Ba al da desberdintasunik estatuko gainerako erkidegoekin?

Kasu horretan, Espainiako lurraldean jaiotzat jotzen dira ezagutzen zaien lehen bizilekua Espainiako lurraldean izan duten adingabeak, edo egiaztatzen dutenak urtebete bizi izan direla Espainian eskaera egiten den unean.

Atal hau amaitzeko, EAEn eta Estatu osoan 2017. urtean nazionalizazioen prozesuan izandako arrazoiak ere erkatu nahi izan ditugu —7. grafikoa—.Espainian, nazionalitatea emateko arrazoi nagusia, «bi urteko egonaldia izatea», apalagoa da (%53,9) EAEn (%61,9) baino. Latinoamerikarren pisua EAEn handiagoa izatea da horren arrazoia. Hala ere, Espainian handiagoa da nazionalitatea bertan bizitzen hamar urtetik gora daramatelako (%23,6) edo Espainian jaio direlako (%13,8) lortzen dutenen ehunekoa. Desberdintasun horiek, neurri batean, migrazio-prozesuak gertatu diren uneen ondorio dira; izan ere, EAEn Espainia osoan baino beranduago izan dira, eta, horregatik, arrazoi horiek —Espainian bizitzen hamar urtetik gora eta bertan jaiotzea— pisu txikixeagoa dute Estatu osoan baino.

6. grafikoa

Nazionalizazioen bilakaera EAEn arrazoiaren arabera (%, 2004–2017)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

7. grafikoa

EAEn eta Espainian nazionalizatzeko arrazoia (%, 2017)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Erroldatuak gehi nazionalizatuak

Ikuspegi-ren zenbait begirada eta txostenetan esan dugun bezala, nazionalizazioek, estatistikaren ikuspuntutik, atzerritarrei buruzko datuak desitxuratzen dituzte nolabait, atzerritar jatorriko nazionalizatuak espainiar nazionalitateko pertsonak izatera aldatzen baitira, etorkinak izan arren. Atal honetan, bi iturri estatistikoak bilduko ditugu –atzerritar nazionalitateko erroldatuak eta nazionalizatuak—, hurbiltze zehatzagoa egiteko etorkinen kolektibora (2. taula). Eta hala, 2017an 187.859 etorkin zeuden EAEn —atzerritar nazionalitatekoak gehi atzerritar jatorriko nazionalizatuak—, eta zenbateko hori gehiago egokitzen zaio EAEn dauden atzerritar jatorriko biztanleei buruzko estatistika ofizialetan ematen denari.

2. taula

Atzerritar nazionalitateko biztanleak, nazionalizatuak EAEn eta lurralde historikoetan (absolutuak, 2017)

	Atzerritar nazionalitateko erroldatuak	Biztanle nazionalizatuak (2003-2017)	Atzerritar nazionalitatea eta biztanle nazionalizatuak	Atzerritar jatorriko biztanleak
EAE	143.036	44.823	187.859	196.589
Araba	26.634	9.131	35.765	35.580
Bizkaia	67.750	22.174	89.924	95.548
Gipuzkoa	48.652	13.518	62.170	65.461

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Ondorioak

- Azken urteetan, gora egin du EAEn nazionalizazioen kopuruak, 2003 eta 2009 artean nazionalizatutako 11.201 pertsonako kopurutik 33.622 pertsonako kopurura aldatu baita, eta horrenbestez, 2017ra arte erregistratutako aldi osoan 44.823 pertsona nazionalizatu dira.

- Nazionalitatea lortzeko arrazoi nagusia «etengabeko bi urteko egonaldia izatea» da oraindik ere. Hala ere, 2010etik aurrera, arrazoi hori indarra galtzen hasi zen, eta beste batzuk agertzen hasi, hala nola, besteak beste, «hamar urte bizitzen eramatea» eta «Espainian jaioa» izatea, alde batetik, bigarren belaunaldi izen okerra eman zaienen ondorioz eta, bestetik, afrikar jatorriko biztanleak bertan finkatzearen ondorioz, jada nazionalitatea eskura baitezakete, dagokien baldintza, hamar urteko egonaldia, betetzeagatik.

- Sexuaren arabera, emandako nazionalitateen artean oraindik ere gehiago dira emakumeen nazionalizazioak gizonenak baino, presentzia handiagoa izateagatik, bai eta latinoamerikar jatorriagatik ere.

- Lurralde historikoetan, urtez urte, nazionalitate gehiago ematen dira Bizkaian, gero Gipuzkoa dago, eta Araba da azkena. 2003 eta 2017 artean emandako nazionalizazio guztietatik, Bizkaian %80,2 latinoamerikar jatorriko pertsonentzat izan dira. Ehuneko hori EAEko batezbestekoa (%75,2) eta Estatukoa (%72,6) baino handiagoa da. Araban, berriz, emandako nazionalizazio guztietatik latinoamerikarrei emandakoak EAEko gainerakoan eta Estatuan emandakoak baino gutxiago izan dira, %65,3. Hala ere, afrikarrei emandako nazionalizazioen ehunekoa %28,7 izan da, hau da, EAEko batezbestekoa (%17,9) eta Estatukoa (%20,1) baino handiagoa. Gipuzkoan, azkenik, joera Bizkaikoaren eta Arabakoaren artekoa izan da, eta EAEkotik hurbilena.